

## ERA ZAHARREKO SANTA AGERA KANTA, JULIO URKIJOK MARKINAN JASOA

Era zaharreko Santa Ageda koplak zahar hauek Julio Urkijok Markinan jasoak dira 1913. urtean, Joaquín Arrietak ahok kantatu zionaren arabera.

*Santa (i) Agera (1), Agera  
Bixar da Sant (i) Agera;  
Bixar da Sant (i) Agera baña  
Gaur aren bespera gaba.*

*(Baztarrak lotsadutzera)*

*Ondo lotsaz ta bildurrez gatoz  
Jauna beorren atera.*

*(Jauna beoren atera)*

*Bi bertso pagadutzera (2)*

*Bi bertso pagadutzeko*

*Lizenziari(k) badago.*

*Lizenziarik ezpada*

*Joan eingo garade atzera.*

*Geu bialtzeko atzera*

*aiñ gizon txarra etzera.*

*Kanta mutillak gogotik*

*Bakotxa(k) bere aldetik*

*Limosna parez espero dogu*

*Etxe ondrau onetatik.*

.....

.....

.....

*uifi, arriliufi! (sic).*

---

(1) Markina inguruetan berezkoa da doinuak eskatzen duenaren arabera, bi hitzen artean *i* letraz luzatzea. Gaur oraindik *Santa (i) Ageda* esaten bait da.

(2) *Pagadutzera* jartzen baldin badu ere, *paratutzera* dela iduritzen zaigu. Horrez gainera, esan beharra dugu, bertsoak bereizteko eran, Urkixok bere zalantzak zituela, nonbait ez baizen ohartu gure koplak zaharretan, pareado gisakoetan, «ritornello» asko erabiltzen zela.

Santi Agera, Agera bitorde Santi Agera  
Bitor da Sauti Agera haue gaurpen verzena  
gaba . . . . .

[Baskariak lotadutiera)

Ondo lotoz ta bilduz Gaboz,  
Jama beoim alera.

(Jama beoim atera)

Bi bertso kiandakatar pagadutgera

Bi bertso pagadutgera

Lizeziari badago.

Lizeziarik erpada

Joan eingo gerate atzera .

Gu bialtzerko atzera

ain gizon tsara etzera.

Kanta mutilak gosotik

Bariotza bere aletarik

Jimosma naraz esera dogu

Etre ondren onchakik

. . . . .

. . . . .

. . . . .

niñi niñik!

Hara hor Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako agiritegian aurkitzen den Urkixo zenaren esku-izkribua.